



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.03.25

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko martxoaren hogeita bostean, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Beloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Tolosako Elo segi parkea zaharberritzeko proiektuko 4. faseko (Dorre-begiratokia birgaitzea eta egokitzea) obren 4. ziurtagiria-likidazioa (1137/2018 faktura).

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko martxoaren 20an egindako batzarreko aktak aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO ELOSEGI PARKEA ZAHARBERRITZEKO PROIEKTUKO 4. FASEKO (DORRE-BEGIRATOKIA BIRGAITZEA ETA EGOKITZEA) OBREN 4. ZIURTAGIRIA-LIKIDAZIOA (1137/2018 FAKTURA).

Earki Arkitektoak S.Coop. Peq. P., enpresak ondorengo txostena egin du 2019ko otsailaren 27an (Ikusi UA19018):

Tolosako Udalak Construcciones Echaide, S.A. enpresari esleitu zion Tolosako Elo segi parkea zaharberritzeko proiektuko 4. fasearen (dorre-begiratokiaren birgaitzea eta egokitzapena) obren kontratua, 72.546,49 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.



TOLOSAKO
UDALA

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak izan dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
1. ziurtagiria.....	1087/2018.....	6.466,58 €
2. ziurtagiria.....	1110/2018.....	29.054,99 €
3. ziurtagiria.....	1137/2018.....	21.058,32 €
GUZTIRA.....		56.579,89 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako laugarrena eta, aldi berean, likidazioa, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
4. ziurtagiria-likidazioa.....	1138/2018.....	15.948,18 €
GUZTIRA.....		15.948,18 €

Ziurtagiria aztertu ondoren, **ontzat ematen da:**

- **4. ziurtagiria.....15.948,18 €**
- **Likidazioa.....72.528,07 €**

Beraz, hori dena kontuan izanik eta udal teknikariaren proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA. Ontzat ematea Elozegi parkeko 4. ziurtagiria (azkenekoa), ondorengo kopuruekin:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
4. ziurtagiria-likidazioa.....	1138/2018.....	15.948,18 €
GUZTIRA.....		15.948,18 €



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hirigintza Departamentuari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 8:30ean.

ALKATEA

IDAZKARIA